ZUZEN ITZAZU TESTUKO AKATSAK:

Giñi, Bidasoko bidelapurra

Bandoleroei buruz hitz egiten denean, segituan **Sierra Morenako gizon zakar eta odalti haiek** etortzen zaizkigu burura **(🡐)**, baina hemen ere, Euskal Herrian, bidelapurrak **ugariak** izan ziren **(🡐)**, batez ere XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran. Garai hartan **guda eta krisi ekonomiko asko** gertatu ziren **(🡐)**. Beharrak edo goseak bultzaturik, askok **erabaki zuten** bidaiariei lapurtzeko bidea utzi eta bazterreko sasien artean ezkutatzea **(🡐)**.

Jose Irigoien, Giñi ezizenekoa, **horren adibide garbia** da **(🡐)**. Irunen jaio zen, eta oso gaztea zela **(🡒)** **Konbentzio Gerrara** joan zen **boluntario** **(🡐)**. Gero mikeletea izan zen, baina **laster** lanik gabe **(🡐)** gelditu zen, ez lapurtzeagatik, baizik eta Aldundiak **gastuak** murriztu behar izan zituelako **(🡐)**. Lanbidez aldatzea **(🡒)** erabaki zuen **orduan**: bidelapurra izango zen.

Giñik balentria ugari egin zituen, lapurreta ikusgarriak, kontrabandoa mugan...; hamaika aldiz atxilotu zuten, eta hamaika aldiz ihes egin zuen espetxetik. Agian, bere lapurretarik ikusgarriena **Hernanin egindakoa** izan zen **(🡐)**: bera eta bere gizonak **(🡒)** herrira **tiroka** sartu ziren eta, hamabost minutuan baino gutxiagoan, 144.000 erreal **(🡒)** lapurtu zituzten **udaletxetik**; dirutza ikaragarria.

Tamalez, **ospeak eta askoren begikotasunak** beste batzuen gorrotoa **(🡐)** ekarri zioten, eta azkenean bere menturak **Donostiako Enparantza Berrian** bukatu ziren **(🡐)**, **(🡒)** 1804ko apirilean **garrotea** eman ziotenean.

Patakon, Bidelapur onbera

1804. urtean **(🡒)** Giñiri **garrotea** eman zioten arren, oraindik ere garai hartako egoera ekonomikoak **lagun asko bideetan lapurtzera** bultzatu zituen **(🡐)**. Normalean, pertsona hauek lanbide garbiak izaten zituzten lehenago, baina beharrak edo bidegabekeriak **beste norbabide bat hartzera** eraman zituen **(🡐)**. Apaiz batzuek, adibidez, sotana bota eta aberatsei lapurtzen hasi ziren, gero **(🡒)** dirua **txiroei** emateko.

Bizkaian Manuel Antonio Madariaga, Patakon ezizenekoa, **ospetsu** egin zen **(🡐)**: “Patakon, dekonari kendu eta estekonari emon”, esaten zen garai hartan. Lehen lapurreta **1823an** egin zuen **(🡐)**. Azkar asko **(🡒)** hartu zuen **fama**, bizkorra baitzen, oso bizkorra. Behin,**(🡒)** alargun zahar bati **dirua** eman zion nagusiari errenta ordaintzeko; horrela, nagusia etorri zen eta alargunak **dirua** eman zion **(🡐)**, baina itzulerako bidean Patakon agertu eta diru guztia kendu zion, kendu edo berreskuratu: alarguna pozik, Patakon pozik. Horregatik, **ez da harritzekoa** atxilotzen zutenean herritarren laguntza jasotzea **(🡐)** **(🡐)**. Beste batean, guardia zibilak orpoz orpo zituelarik,**(🡒)** zaldiari **ferrak** alderantziz jartzea bururatu zitzaion, eta horrela ihes egitea lortu zuen.

Melillako espetxetik ere ihes egitea lortu zuen, 1848an. Afrikara alde egin zuen eta ez zen berriro itzuli. Hantxe hil zela esaten da. Egia ala gezurra, argi dago orduantxe **(🡒)** hasi zela **leienda**.